



EUSKARALDIA

2020ko azaroaren 20tik abenduaren 4ra

ULMA Taldeko berripapera 8 zk.

Testigantzak

Zergatik erabaki duzu Euskaraldian izena ematea?



Ana da Costa. ULMA Eraikuntza

“Niretzat euskaraz hitz egitea erronka bat da. Txikitan ez nuen euskara ikasteko aukerarik izan eta orain euskaraz mintzatzen askatzea kosta egiten zait. Euskaraldian zehar ingurukoek nirekin euskaraz hitz egiteak oztopo horiek gainditzen laguntzen dit”.



Julen Markez. ULMA Forja

“Etorkizun euskaldun bat eraikitzeko ezinbestekoa da euskal hizkuntzaren erabilera indartzea; ekimen hau bultzada txiki bat emateko aukera paregabea dela iruditzen zait”.

Eguneko datua

366.680

Wikipedian euskaraz dauden artikulu kopurua

Pandoraren kutxa

Maddalen Arzallusek Euskaraldiari eskaini dio 'Kantualidadea' Gaztea-ko 'Dida' saioan. Ikus ezazu bideoa! 'Euskal Herria, presta belarria, berriro hemen da Euskaraldia!'



emun

12. eguna